

GOTZON AULESTIA TXAKARTEGI
(1940 – 2003)

BIOGRAFIA-DATUAK

Apaiz musikari ospetsu hau Ondarroan jaio zen. Humanitateak eta Filosofia ikasi zituen Donostian. Teologia ikasketak Granadan egin zituen.

Haurtzaroan hasi zituen bere musika-ikasketak. Ikasketa horiek 1963an osatu zituen Donostiako Kontserbatorioan. Bertan bi irakasle ospetsuren gidaritzapenan jardun izan zuen. Horrela piano-ikasketak Angel Cabanas jaunarekin eta harmonia, kontrapuntua, fuga eta konposizioa Francisco Escudero jaunarekin egin zituen. Harmonia eta fugan lehen sariak irabazi zituen.

1967. urtean Parisera joan zen konposizio-ikasketak hobetzera. Olivier Messiaenekin jardun izan zuen ikasten. Geroago, Madrilera joatean, Gerardo Gombaurekin aritu zen.

Musika garaikide eta elektro-akustikoari buruzko ikastaro berezietan hartu zuen parte Terni, Nono, Gentiluci, Manzoni eta Brncikin batera.

Lan handia burutu zuen organo-jole eta abesbatzen zuzendaritza lanetan. Hala ere, bere berezitasunik nabarmenena

GOTZON AULESTIA (1940-2003)

konposizioan oinarrizten da, alor horretan hainbat sariketa lortu zituela.

Era guztietako musika konposatu zuen bizitzan zehar: herri-tarra, sinfonikoa, abesbatzentzako, erlijioso, ... Oso ugaria izan da, baita ere, azken arlo honetan egin izan duen produkzioa. Donostiako Hamabostaldian eta Nazioarteko Santanderko I. Jaialdian gonbiteak jaso zituen bere konposizioak bertan estreinatzeko.



1983. urtean Donostiako Artzain Onaren Eliza Katedraleko organo-jole izendatu zuten. Donostiako kontserbatorioko harmoniako irakasle izan zen 1983tik 2003ra arte. Geroa konposizioa irakasten jardun izan zuen, batez ere. Irakasle lanetan, berez, harmonia, analisisa eta gaur egungo konposizio ikasketa bereziak irakatsi izan zituen.

Esan bezala, Donostiako Kontserbatorioko konposizio-irakaslea izan zen heriotzerarte, baita, zentro horretako laboratoriorio elektro-akustikoko zuzendari ere. Laboratorio horren bidez hainbat ikasle eta organo-joleri eskaini izan zien laguntza eskuzabaltasunez. Horrela aitortzen du Donostian organo-jole izan zenetik berarekin harreman estuak izan dituen Javier Epelde Aramendi Bilboko Karmeloko organo-joleak.

Honen ustez musika alorrean (apaiz lana ere kontuan hartzekoa delarik) egin izan zuen konposizio lan oparoarekin batera bi alor dira nabarmentzekoan bere bizitzan. Batetik hainbati konposizio teknikak ikasteko tresneria berrien bideak irakastea eta, bestetik, XX. mendeko musikalarrien konposizio teknikak sakonki aztertzea.

Sasoi ederrean eta ustekabean gertatutako heriotza-orduan jadanik prestatua zuen *Técnicas compositivas del siglo XX* ikerlanaren bigarren liburuki mardula, bertan Xenakis, Ligeti, Berio eta Penderecki sakonki aztertzen dituela. (lehenengoa, 1999an argitaratua, 687 orrialdeko liburua da).

Goian bego, hain lan oparoa burutu izan zuen ondarrutar langile fina. Guk, nahi izanez gero, aurrerantzean ere utzi dizkigun lanak gozatzeko aukera izango dugu.

OBRAK

Oso ugaria izan da Gotzon Aulestiak burutu izan duen lana. Hainbat obra ditu argitaratuta. Jabetza Intelektualean erregistratutakoen artean 86 partitura aurkitu ditugu. Zerrendan falta ziren batzuk ere tartekatu ditugu lana ahalik eta osoan biltzeko asmotan. Esan bezala, era askotakoak eta hainbat musika-motatakoak dira. Hurrengo lerroetan dituzu, irakurle, motaren arabera sailkatuta.

A.- KONPOSIZIOA INSTRUMENTU BAKARRERAKO ETA ORKESTRARAKO

- *Piano eta orkestra kontzertua (Concierto para piano y orquesta)* (2001)

B.- KONPOSIZIOA ORKESTRA EDO BANDARAKO

- Beethoven-en 26. sonata, andante bariazioak dituela orkestratarako egokitua.
- *Preludioa*: orkestra sinfonikorako.
- *Zubi zahar*: banda eta danborradarako ereserkia. Izen bereko Ondarroako ikastolaren hasiera-egintzarako egina.
- *Hitzmitz*: orkestrarako preludea.
- *Urgazak*: orkestrarako poema sinfonikoa. Lehen saria Durangoko lore jokoetan, obra sinfonikoen konposizio arloan.
- *Eraz, Beraz, Erraz*: orkestra sinfoniko eta tresna autoktonoentzako musika gunea.
- *Orkestrarako kontzertua* (1998): orkestra sinfonikoarentzako kontzertua, hiru mugimendutan. 40 minutuko iraupena. Estreinatua gabeko lana.
- *Pasodoble "Luis Oloriz"* (2000): bi piano eta bandarentzat.
- *Orkestrarako fantasia* (2001): orkestra sinfonikoarentzako fantasia. 15 minutuko iraupena du.

C.- KORUA EDO AHOTSA, ORKESTRAREN LAGUNTZA DUELA

- *Eucaristía*: eszena dramatikoa orkestra handi eta korurako.
- *Esperpento*: Valle-Inclán idazlearen testuan oinarritutako eszena dramatikoa 4 ahots misto eta bakarlariarentzat, orkestra sinfonikoaren akonpainamendua duela.
- *Escena dramátikoa*: Shakespeare idazlearen *Hamlet* testuan oinarrituta, orkestra sinfonikorako, koruentzat eta bakarlariarentzat.
- *Magnificat*: koru, bakarlari eta orkestra sinfonikoarentzako oratorioa.
- *Ixil-ixilik*: 6 euskal kantu herritarri orkestazioa eta harmo-nizazioa jartzea.
- *Bidez-Bide* (1996): Donostiako "Artzain Ona" elizaren mendeurreneko ereserkia 4 ahots mistoko koruarentzat eta organorako. Egokitze hirukoitza orkestra sinfoniko txiki-rako eta handirako, organoa lagun duela. Artzain Onaren Mendeurreneko Batzordearen eskariz eginiko obra.

D.- ANTZERKI MUSIKALA

- *Egia bat esateagatik*: sopranoarentzat eta errezitatzailea duen zenbait musika-tresnarentzat.
- *Atako bandan*: poema sinfonikoa bakarlariarentzat, 4 ahots mistoko korurako eta kamera orkestrarako.

E.- KONPOSIZIOA AHOTS ETA KAMERA-ORKESTRARAKO

- *Ardu, ardu*: Piano eta haize-instrumentuetako kalejira. Korua bi ahotsetan.



Goian: Gotzon Aulestia eta Txomin Ituarte. *Bebean:* Paplo Pascual baritonoa, Ainhoa Garmendia (kantaria "Agur Maria"ren estreinaldian), Itziar Barredo pianista eta Miguel Olano tenorea.

- *Amets egin dot.* Ahots bakarrerako abestia, kamera orkestraren akonpainamendua duela. Lehen saria Euskal Abestiaren III. Jaialdian – 1967
- *Mundu baltzean; Arre Orru; Bost kanpai; Nik ez dakit.* abestiak ahots eta kamera-orkestrarako.
- *Eskari samurra "Saustan":* 4 ahots misto eta bakarlariarentzako abestia, piano eta kamera-orkestraren akonpainamendua duela.

- *Cantar es amar*: 4 ahots misto eta bakarlarientzako 14 abestiko sorta, kamera orkestraren akonpainamendua duela.
- *Itxaso lapurra*: 6 ahots misto eta bakarlariarentzako abestia, tresna autoktonoen akonpainamendua duela. 2. saria Abesbatzentzako Bizkaia lehiaketan, Bilbon, 1976an.
- *Zuzentza; Amaren kezka; Bertsolaria; Euskal-herri berria*: 4 ahots misto eta bakarlarientzako abestiak kamera-orkestraren akonpainamendua duela. EDIGSA-k Donostian argitaratutako diskoa.
- *Herri zahar hau*: 10 abesti biltzen dituen sorta, kamera orkestrarako eta bakarlarientzat. EDIGSA-k Donostian argitaratutako diskoa
- *Abizpatasuna*: Maite Idirin (sopranoa) abeslariaren diskorako harmonizazioa eta kamera-orkestrarako prestaketa; ELKAR-ek Baionan argitaratua.
- *Jolastuko gara*: haurrentzako 10 abesti biltzen dituen sorta, kamera orkestraren akonpainamendua dutela. Lurdes Iriondoren letra du. EDIGSA-k Donostian grabatuta.
- *Euskal Kondaira*: Euskal Herriko historiaren estanpak. Xabier Leteren eta X. Amurizaren letra du. Ahots eta kamera-orkestrarako musika-guneak.
- *Txalo pin txalo II*: euskara ikasteko metodoa. Ahotserako 24 kantu, kamera orkestraren akonpainamendua dutela. EREIN-ek argitaratua eta Donostiako IZ-en grabatua. Andu Lertxundiren testua du.
- *Txalo pin txalo III*: euskara ikasteko metodoa. Ahotserako 24 kantu, kamera orkestraren akonpainamendua dutela. EREIN-ek argitaratua eta Donostiako IZ-en grabatua. Andu Lertxundiren testua du.

- *Eresi*: biolontxelo, piano eta korurako elegiazko kantua.
- *Tema con variaciones* (2000): kamera orkestra, piano eta organoaren laguntzarekin.

F.- KORUA ETA/EDO AHOTSA, GEHI ORGANOA (TEKLATUA)

- *Meza "Artzai Ona"*: herri eta koruarentzat, organoaren akonpainamendua duela. (Donostiako Elizbarrutiko Lehiaketan onartua).
- *Misa de la Asamblea Cristiana*: bakarlari eta herriarentzat, organoaren akonpainamendua duela.
- *Salve*: herriarentzat eta organorako.
- *Joseph*: herriarentzat eta organorako.
- *De pie a tu derecha*: antifona herriarentzat eta organorako.
- *Missa do IX Congresso Eucarístico Nacional do Brasil*: koru eta herriarentzat, organoaren akonpainamendua duela.. (lehiaketan aukeratutako letra eta musika – Manaus 1975).
- *Himno a la Virgen de la luz*: herriarentzat eta organorako. Jose M^a Pemán jaunaren letra du.
- *Himno a Santo Tomás*: herriarentzat eta organorako. Jose Miguel Fernández jaunaren letra du.
- *Eliz-Abestiak I*: 30 kantu biltzen dituen sorta 4 ahots mistorentzat, organoaren akonpainamendua duela.
- *Eliz-Abestiak II*: 23 kantu dituen sorta herriarentzat eta organorako.
- *Aietetik Kantari*: 14 kantu lau/bost ahots mistoko koruarentzat, organoaren akonpainamendua duela. IZ-k Donostian argitaratutako diskoa.
- *Alleluia*: 4 ahots mistoko koruarentzat eta organorako.

- *Pentekonta*: abestia ahots-laukotearentzat eta organorako.
- *Merezi duzun aitorra*: kantua herriarentzat eta organorako. (Jose M^a Setién jaunaren apezpiku-ezteiak: 1972 – 1997).
- *Agur Maria* (1998): kantua sopranoarentzat, piano eta harizko orkestrarako: bi bertsioa: DO nagusian eta RE b nagusian.
- *Nire poztasuna*: kantua 4 ahots mistoko koru eta herriarentzat, organoaren akonpainamendua duela. Lisieux-eko Teresa santari, Santaren mendeurreneko batzordeak eskatuta.
- *Gure Aita* (2000): kantua tenorearentzat (baritonoa) eta pianorako. Bi bertsio daude: RE nagusian eta SI nagusian.
- *Zeruko Erregina*: Bach-en “In memorian”, 4 ahots mistoko koruarentzat eta organorako.
- *Zeruko Erregina*: kantua herriarentzat eta organorako.
- *Jaunaren Aingeruak*: “Angelus” kantua herriarentzat eta organorako.
- *Hona hemen*: 4 ahots mistoko koruarentzat eta herriarentzat, organoren laguntza duela. Jose M^a Zunzunegi jaunaren letra du.
- *Maita ezazue*: kantua 4 ahots mistoko koruarentzat eta herriarentzat, organoaren laguntza duela. Xabier Basurko jaunaren letra du.
- *Elizkizun liturgikoak (Oficios Litúrgicos)*: Juana Francisca F. de Chantal santaren jairako, kantu eta organorako. Salestar Ikustaldi-Ordenak eskatuta.
- *Elizkizun liturgikoak (Oficios Litúrgicos)*: Andra Mariaren Ikustaldi jairako; kantu eta organorako. Salestar Ikustaldi-Ordenak eskatuta

- *Sylviarentzat* (2002): ahotsaren eta pianoaren laguntzarekin.

G.- BAKARLARIA DUEN EDO EZ DUEN "A CAPELLA" KORUARENTZAT

- *Campanitas*: kantua lau ahots baxurentzat eta tenorearentzako soloa.
- *Bateletan*: kantua 6 ahots mistorentzat eta soprano eta tenorearentzako soloak.
- *Nor da pekatari*: kantua 4 ahots mistorentzat eta bakarlariarentzat (Tolosako abesbatzek argitaratua).
- *Fuga vocal*: 4 ahots mistorentzat.
- *Egun batean*: kantua 4 ahots mistorentzat eta errezitatzailerentzat. Tolosako Abesbatzen 1. saria.
- *Haundiesten du* (1989): kantata lau korurentzat eta ahots-laukote bakarlariarentzat.
- *Aspaldian*: gabon kanta 4 ahots mistorentzat eta bakarlariarentzat (*Ondarroa* aldizkarian argitaratua – 1988).
- *Bat bakarra*: haurrentzako kantua lau ahots berdinetan. (TXIO-TXIOKA sortan argitaratua – Gipuzkoako abesbatzen federazioa).
- *Uhinak kulunkari*: haur-koruarentzako kantua hiru ahots berdinetan. (TXIO-TXIOKA sortan argitaratua – Gipuzkoako abesbatzen federazioa).
- *Nadin nadilla*. kantua 4 ahots mistoko koruarentzat eta sopranoarentzako soloa.
- *Coral*: Juan Sebastian Bach-en "in memoriam".
- *NHI* (1990): hiru gune eta ahots-taldeentzako musika. Donostiako Musika Hamabostaldiak eskatuta eginiko obra – 1990.

H.- KAMERA-ERAKETARAKO KONPOSIZIOA

- *Gernikan gertatu zen*: pianorako obra.
- *Ezina*: flauta, oboe eta bi gitarrentzako ikerlan dodekafonikoa.
- *Luzaideko Iantzak*: Luzaideko dantzen gaineko bi disko-ren harmonizazioa eta orkestazioa. Donostiako EDIGSA-k argitaratua.
- *Carnaval donostiarra*: 18 euskal gai herritarri fanfarriarako konponketak, harmonizazioa eta orkestazioa. Tirri-Tarrak interpretatu eta Donostiako EDIGSA-k argitaratua.
- *Scherzo*: hari-laukotearentzat.
- *Fuga instrumental 1*: haizezko laukotearentzat.
- *Romanzas*: pianorako bi pieza
- *Fuga instrumental 2*: haizezko septetoarentzat.
- *Jostari*: harizko laukotearentzat
- *Minueto*: pianorako.
- *Haizea*: flauta eta pianorako fantasia.
- *Antzaldatze* (1990): organorako eta bi tronparentzat. Santander-ko Nazioarteko I. Jaialdiaren eskariz egindako obra – 1990.
- *Harizko Laukotea*(1992): harizko laukotearentzat – Francisco Escudero jaunari eginiko omenaldia. Donostiako Musika Hamabostaldiaren eskariz eginiko obra – 1992.
- *Arantza artean*: Arantzazuko ereserkiari buruzko bariazioak dituen gaia. 5.00. urtea antolatzekeo eratutako Arantzazuko Aita Frantziskotarren batzordearen eskariz.

GOTZON AULESTIA (1940-2003)

I.- ELEKTROAKUSTIKA

- *Racconto* (1997): obra lektroakustikoa eta txistua.

H.- ORGANORAKO KONPOSIZIOA

- *Arantzazu* (2003): organorako konposizioa.

Patxi Uribarren Leturiaga – Gotzon Aulestia Txakartegi.